

**ADI!!! AZKEN BERRIAK**

**BAJAK ZIGORTZEA:** irailaren batetik aurrera %100 jasotzea ahalbideratzea lehen egunetik eta kasu guztietan. Irailean edota urrian bajan egon edo egongo direnek soldatan kenkaria izango dute, azaroko nominan baina kendutako guztia berreskuratuko dute.

**SOLDATA:** urtarriletik ekainera+ %1,50 eta uztailetik abendura +%1,75 eko igoera soldatan. Urtarriletik uztailerako igoera urriko nominan sartuko dute. Itzarriko ekarpena %1ekoa. Igoera honek ez du galdutako eros ahalmena berreskuratzen lagunduko.

**ORDEZKAPENAK:** Dekretua aldatzeak denbora luzea suposatzen duenez, agindu baten bitartez ahalik eta lasterren ordezkapenak lehenengo egunetik beteko direla adierazi digute. Datozen egunetan gauzatzea espero dugu.

**ZERRENDEN IREKIERA:** Hurrengo oposizioa izan aurretik, EPE horretako espezialitate zerrendak zabalduko dira. Data zehatza jakin bezain azkar, jakinaraziko dugu.

**BAIMENAK:** aitatasun baimena edo bikotearena jadanik 5 asteak da. Haurra jaiotzen den egunetik aurrera eta jarraian hartu behar da.

**2018ko EPE.** [Hezkuntzako web orrian](#) hurrengoak argitaratu dira: Praktiketako funtzionario izendatzen duen agindua, praktikaldia arautzen duen ebazpena eta hautatuen behin betiko zerrenda ebazpenaren aldaketa.

*Sinatutako akordioaren Jarraipen Batzordean* fintzeko ditugun gaiak jorratzen ari gara eta STEILASEk proposamen ugari ipini ditu mahai gainean: 3 urteko gelatan matrikula 20tik gora igoz gero ikasturtean zehar laguntzak jasotzeko aukera, ZZEEko lanpostuak lehiaketa prozesuetara atera aurretik hauek zerrendatu eta sindikatuekin partekatzea eskatu dugu, bitartekoen egonkortasun ereduak sor ditzazkeen arazoak ekiditzeko proposamenak...

Informazio gehiago gure egoitzetan edo  
[www.steilas.eus](http://www.steilas.eus)

**AURREAKORDIOAN SINATUTAKOA AZKAR BAINO LEHEN BETE DADIN LANEAN  
JARRAITUKO DUGU ZORROTZ**